

## **START INNOVA PROIEKTUA**

Jon Auzmendi, Javi Castaño, Alex Echarri eta Javi Castaño.

### **KOSTUEN EGITURA:**

Gure produktua sortzeko, garrantzitsua da jakitea zenbat kostatuko zaigun proiektua aurrera eramatea. Horren ondorioz kostuen egitura erabiltzen da enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar delako. Kostuak hainbat ezaugarri ditu, haien artean, kostu finkoak, aldagarriak eta azkenik eskala eta hedapen ekonomikoak daude, non horiei esker kostuen egitura lortzen den.



Kostu finkoei dagokionez garrantzitsua da aipatzea garaje batean egingo dugula lan eta baita ordenagailu propio bat erabiliko dugula, hau da, gure ekipo informatikoa edukiko dugu beraz faktore horrek kostu finkoak jaitziko du. Nahiz eta hasieratik garaje batean hasi eta ekipo informatikoa eduki, beharrezkoa izango da txipa sortzeko materialak eskuratzea, baina ez dira material oso garestiak izango.



Kostu aldagarriei dagokienez aldiz lanabesak erostea beharrezkoa izango da txipa sortzeko eta salmenta bolumenaren arabera izango da kostua. Garrantzitsua da aipatzea txiparen egitura aldakorra izango dela. Hasieran txip lokalizadore bat sortuko dugu baina material desberdinez eta egitura desberdinak erabiliz beraz etengabe arituko gara aldatzen txiparen barruko gauzak.

Hasierako inbertsioari dagokionez inbertsioa ez da oso handia izango material gehienak edukiko ditugulako eta salmenta arabera eta gure patrozinatzaileen arabera gure hedapena lortuko dugu, lokal gehiago erosiz eta gure enpresa eta produktua espandituz.

Eskala ekonomiko ona izatea espero dugu, hasieran txip gutxi produzituko ditugu, baina gero, eskala handian produzitzean, geroz eta gehiago eta geroz eta merkeago egingo ditugu, gure ekoizkortasuna nabarmen haziz.

